

DEKORAZIOA



B

BALLENE

K

KARRARA

erto

ERLO



MADDAIZEN

UH

URDIA KOSTAKO HITZA

LI

UZARRIA

ZH

ZARAUZKO HITZA

XS arkitektura

Herrikobarra 11, behea • ZARAUTZ • 943-13 43 58 • www.xsarkitektura.com

AHOLKULARITZA TEKNIKOA KOMUNITATEENTZAT ERAIKINEN MANTENUA / ERREABILITAZIOA



4-5
Homefullness

6
Upategia

8-10
Koltxoiak

14-18
Landareak

22-26
Sukalde gainak

28
Oheburukoa

30-34
Egurra

38-40
Very Peri

42-46
Lorategiak

48
Gortinak

52-56
Azulejoak

60-64
Armairu perfektua

66
Lisaketaz haratago

68
Sarrailak

Argitaratzailea:

Urolako Komunikazio Taldea

Zuzendaria:

Onintza Lete Arrieta

Kudeatzailea:

Leire Larrañaga

Publizitatea:

UKT komertzial taldea

Testuak:

Kristina Fernandez

Diseinua:

Itxaro Iraeta

Helbidea:

Soreasu 1

AZPEITIA

943-81 38 41

943-89 00 17

urolakosta@ukt.eus

www.gukazerbitzuak.eus

GUKA
ZERBITZUAK





‘HOMEFULLNESS’ EDO ETXERA IRISTEAREN PLAZERA

Tiffany Watt Smith idazleak sortutako terminoak etxera itzultzean izaten den sentipen atsegina definitzen du. Hona hemen etxeko atetik sartzean ‘homefullness’ sentitzeko gakoak.

Tiffany Watt Smith idazle eta ikertzaileak 'The book of human emotions' liburuan erabili zuen lehenengoz 'homefullness' terminoa, bidaia luze baten ondoren etxera iritsi zen unean zuen sentipen paregabeari erreferentzia eginez. Izan ere, dekorazioaren eta barne diseinuaren munduan hamarkadak daramatzate inguruneak eta etxeak gure bizitzan zein aldartean nola eragiten duten aztertzen.

Babeslekura, gure sentitzen dugun espazio batera, itzultzea esan nahi du 'homefullness' hitzak, baina 'homefullness' sentitzeko, beharrezkoa da etxeak plazeraren sentipen hori transmititzea.

Emozio hori indartzen laguntzeko eta etxeko sarrerako atea gurutzatzen duzun bakoitzean sentimendu hori sorrarazteko oinarritzko gakoak dira honako hauek:

1. Zaindu ordena eta garbitasuna. Etxe ordenatu bat energia positiboz betetako gune bihurtzen da, eta horrek eragin zuzena du gugan. Horregatik, garrantzitsua da etxetik irteterako dena ordenatuta eta etxeko lanak eginda uztea: garbitu platerak, txukudu egongela edo komuna, eta ez utzi oheak egin gabe.

2. Gora minimalismoa. Ideia garbia da: gutxiarekin asko. Zenbat eta estilo sinpleagoa izan, orduan eta erlaxazio sentipen handiagoa izango dugu etxean sartzean. Hala ere, hori ez da espazio hotzekin edo inpersonalekin nahastu behar. Arreta jarri egongelaren edo harrera lekuaren dekorazioan, ikusten den lehen gela horixe baita. Erabili ordena maximizatzen eta



dena kontrolpean izaten laguntzen duten irtenbide modularrak.

3. Borobil formako altzariak. Aukeratu gelei ukitu alaia emango dieten forma organikodun altzariak. Forma inguratzailak dituzten diseinu garaikideak atseginagoak dira, eta berehalako erosotasun sentipena sortzen dute. Mahai, sofa, besaulki, ispilu edo oheburuko biribilek lasaitasuna ematen dute, eta horregatik dira gelak apaintzeko aukerarik onenak.

4.- Elementu naturalak. Gaur egungo joera izateaz gain, etxeko giro lasaiak indartzen dituzte ehun eta material naturalek. Artisau piezak, zurezko edo harri naturalezko altzariak, zuntzeko xehetasunak edo bereber estetikakoak... Giro erosoagoa eta freskoagoa sortzen laguntzen duten eta sustraietara hurbilduko gaituzten hamaika aukera daude.

5.- Oasi berde bat. Frogatuta dago landarediak etxebizitzaren dekorazioan eta gugan onurak eragiten dituela. Beraz, zergatik ez sortu asfaltozko oihanetik ihes eginaraziko digun oasi bat? Landareek estresa murrizten eta antsietatea gutxitzen dute, eta gainera, efektu lasaigarri garrantzitsua daukate. ■

Etixerako instalakuntzak
Argiteria
Bainuak
Sukaldeak
Lokalok

Izarraitz auzoa, 66 ● AZPEITIA
606 30 63 68 ● axkiola@gmail.com

axkiola
elektrikari lanak

UPATEGIA, ETXEAN

Ziur etxean edo lagunen artean ardozaleren bat baduzula. Plazer ikaragarria da bazkari edo afari bat kopa bat ardo onekin gozatzea. Gainera, botilak ondo gordetzeko eta bisitariak datozenerako etxean erreserba ona izateko, leku berezi bat egitea komeni da. Etxean upategia nola eduki jakin nahi al duzu?

Sibarita, hasiberria edota ardozalea izan, hona hemen etxean upategi bat izateko aholkuak:

Temperatura. Ardo botilak gordetzeko aukeratutako tokiak 13 eta 16 zentigradu arteko temperatura izan behar du, eta oso garrantzitsua da termometroan aldaketarik ez izatea. Horregatik, komenigarria da ardoaren ondoan berogailurik ez jartzea. Sotoko trasteleku bat horretarako aukera bikaina izan daiteke.

Argia. Kontuz ibili behar da leku argitsuekin! Ardoa hondatu egin dezake botilen gainean argi natural etengabea izateak. Botilaratzeko aukeratutako kristalak berde edo marroi ilunak eta ia opakoak izaten dira, ardoaren kontserbaziorako hain kaltegarriak diren UVA izpiak saihesteko helburuz.

Botilen posizioa. Botila modu horizontalean kokatzea da ardoa kontserbatzeko lehen gomendioa. Botilak etzanda gorde behar dira, kortxoa beti egon dadin ardoarekin kontaktuan eta tapoian sor daitezkeen arrakalak saihesteko. Horrek hermetismoa bermatzen du. ■





Albizu



INTERIORISMO

Albizu

INTERIORISMO

ALBIZU PINTURAK ETA ETXE APAINKETAK



Pinturetan aukera zabala, hormak, al-tzariak, egurrarentzako tratamentuak, eta abar...



Servicolor makinarekin berehala lortuko duzu nahi duzun kolorea.



Arte Eder eta eskulanetarako gaiak: astoak, mihiseak, olioak, akrilikoak, pintzelak...



Olioz eta akuarelaz eginiko margolanak, laminak. Era guztietako markoztatze lanak.



Paper pintatuak eta muralak: botanikoak, geometrikoak, lisoak, testuradunak... azken kolekzioak. kolekzioak.



Oihaletan aukera zabala: leihoak (estoreak, biribilgarriak), ohe estalkiak, kuxinak edota tapizatu lanak egiteko (besaulkiak, oheburukoak...)



Alfonbrak eta moketak era guztietako diseinu eta neurrietan, eta egur laminatuetan eta binilozko lurretan.



Besaulkiak, komodak, lanparak, mahaiak... proiektu eta erreforma lanak.

KOLTZOIA AUKERATZEKO GALDERAK

Bizi kalitatea hobetzen du koltxoi on batean lo egiteak, baina horien eskaintza anitza eta zabala denez, zaila da nolakoa eskuratu erabakitzea. Mota askotakoak izan daitezke, askotariko materialetakoak (aparrizkoak, malgukiak, latexak...) eta irmotasun maila desberdinekoak. Gainera, horien arabera, asko aldatzen dira koltxoen prezioak. Dena den, ezinbestekoa da koltxoi egokia aukeratzea.



VISPRING

Luxury Beds - London 1901



Etexabe Confort
1992tik

C/ Nafarroa Kalea nº 1
Zarautz
943 83 52 18
www.etxabeconfort.com

Koltxoa aldatzerako honako bost galdera hauek egin zure buruari:

Nola egiten duzu lo?

Koltxoi gogor bat aukeratu behar duzu ahoz gora, posizio supinoan edo buruz gora lo egiten baduzu. Albora begira lo eginez gero, hain irmoa ez den koltxoi bat aukeratu behar duzu, sorbalda apur bat hondoratzea eta postura eroso bat aurkitzea ahalbidetuko dizuna.

Zenbat pisatzen duzu?

Asko pisatzen baduzu, koltxoi tinkoa beharko duzu. Izan ere, hondoratu egingo zara koltxoi bigun batean. Pertsona arinagoek malgutasun handiagodun koltxoiak behar dituzte, beren erara egokituko eta pisua hobeto banatuko duten koltxoiak.

Asko mugitzen al zara?

Lo zauden bitartean asko mugitzen baldin bazara, koltxoi gogorra komeni zaizu, ahaleginik egin gabe biratzeko. Koltxoi bigun batean hondoratu egingo zinateke, eta kosta egingo litzaizuke buelta ematea.

Beroa pasatzen al duzu?

Beroa pasatzen baduzu, erraz izerditzeko bazara edo leku epel batean bizi bazara, malgukidun koltxoa da zuretzat egokiena, hobeto aireztatzen direlako eta freskoagoak direlako.. Hozberoa bazara edo leku hotzean bizi bazara, aparrezko, latexezko edo material biskoelastikozko koltxoiak hobeto. ■



- Zergo eta kontabilitateko zerbitzuak
- Lan eta merkataritzako harremanak
- Ibilgailuen eskualdatzearen kudeaketa
- Testamendu, oinordetza eta doaintzen kudeaketa
- Nazionalitate eta agrupazio kudeaketa



📍 Ibai-ondo ibilbidea 1, ORIO · 📞 943-83 44 66 · 📠 688 75 59 48
 📧 info@egarmendia.com · 🌐 www.egarmendia.com



**BARNE DISEINUAN 20 URTE BAINO
GEHIAGOKO ESPERIENTZIA**



“Espazio guztiek dituzte hobetzeko milaka aukera, bai zure espazio pertsonala edo laneko kalitatea hobetzeko aukerak. Beti ere zure beharretara egokitzen den diseinua sortuz”





Landeta hiribidea, 6 • AZPEITIA • 943-15 18 44 • 680 56 31 88
www.bijotaaltzariak.com





BIJOTA

Altzariak eta atsedena

**ATSEDENARI GERO ETA GARRANTZI HANDIAGOA EMATEN DIOGUNEZ, ETORRI GURE
ERAKUSKETA ZABALEKO PRODUKTUAK IKUSTERA ETA PROBATZERA!**

Hartu zure hitzordua arreta pertsonalizatua jasotzeko.

ETXEA ETA LORATEGIA ALAITZEKO LANDAREAK

Loreak eta landareak Europako kontsumitzaileen artean sustatzeko fundazio independentea da Flower Council of Holland, eta urte berriarekin batera, landareen eta loreen 2022ko joerak argitaratu ditu. Jarraian, zure etxean behar dituzun hamar landareen zerrenda:

epezabal

epzo 
ate eta automatismoak

Ugarte Industrialdea, 68-69
20720 AZKOITIA

☎943-85 71 86 📞699 98 94 67

www.epezabal.com

epz@epezabal.com



AGINAGA

— ALTZARIAK —

Etixerako denetarik dugu, almagazneneko prezioekin.

Kalitate ona eta prezio paregabeekin.

ESPOSIZIO ALDAKETAGATIK,
%50KO DESKONTUAK.



Estrata 3. pab. Errasti (Aginaga Auzoa) • 20170 USURBIL

Tel./FAXa: 943-36 93 59 / 676 35 56 35 • mueblesaguinaga@mueblesaguinaga.com



2. Iratzea: hutsik egiten ez duen landarea

Iratzea landare bikaina da, edozein txokotan ondo geratzen dena. Oso erraza da zaintzeko: ez du eguzki askorik behar, eta, beraz, iparraldera begira dagoen gunee ilun bat apain dezake. Kontuan izan behar duzun gauza bakarra zera da: lur oso hezea behar du, batez ere udan. Barneko landare gisa ere balio du, eguzkiak zuzen jotzea saihesten baduzu eta ez baduzu aire korronteen eta tenperatura altuen eraginpean jartzen.



3. Bugainbilea, barrura eraman dezakezun landare igokaria

Normalean kanpoko landare igokari gisa hartzen badugu ere, barruan ere badu bere lekua. Etxeko lekurik eguzkitsunean, loreontzi batean eduki dezakezu babesean. Hori da bugainbilea zaintzeko alde garrantzitsuenetako bat; izan ere, nahikoa eguzki ez baldin badu, ez du bizirik iraungo. Leku epeletarako bikaina da, hotzik ezean negura arte izan ditzakeelako loreak. Onena? Ez duela ur askorik behar.

1. Oxalis: udaberrian ernaberritzen den landare dotorea

Landare ikusgarria da; izan ere, egunez hostoak ireki egiten zaizkio, eta ilunabarrean, berriz, itxi. Negurako ez da aukerarik onena, atsedeen begetatiboan egoten delako eta udaberrian ernaberritzen delako. Oso azkar hazten da, eta ez du zainketa handirik behar izaten. Indartsu hazteko argi asko behar badu ere, iragazi egin behar da. Landare horrek aldian-aldian behar du ura, baina ez gehiegi. Atsedeen begetatibon den garaian, gainera, ez dago ia ureztatu beharrik.



4. Kosmos edo ekilore purpura batzuekin, bete lorategia kolorez

Loreak berdea baino gehiago gustatzen bazaizkizu, zure landarea da bipinatus kosmosa. Abantailak? Loraketa oparoa du, eta beraz, udaberrietik udazkenera apainduko du lorategia. Gainera, ez du zaintza lan askorik behar: leku eguzkitsu batean jarrita nahikoa da, eta ez duzu sarritan ureztatu beharko.



5. Salbiarekin emaiouzu zure etxeari ukitu probentzal bat

Salbia beti da egokia. Belar usaintsu hori primeran geratuko da lorategian, ukitu probentzala emango baitio. Salbia mota asko daude; horien artean aurkituko duzu salbia officinalis, aromatizatzaile gisa erabili ohi dena eta zenbait plateretan primeran geratzen dena. Ondo zaintzeko, eguzkia eta beroa jasotzen dituela eta neurrian ureztatzen dela ziurtatu behar da.



Kalitatezko diseinuak eta
bezeroen beharretara egokitutako
arreta pertsonalizatua



📍 Amue kalea, 3 • AZPEITIA
☎ Tel.: 943-81 05 04 @abea@abeaaltzariak.com

6. Eman itzalei kolorea akilegiarekin

Lorategiari kolorea emateko beste aukera bikain bat da akilegia edo kolonbina. Lore dotoreak dituen landarea da, eta leku laiotzetan hartuko du distirarik handiena, nahiz eta gune eguzkitsuetan ere hazten den. Etengabe baina tamainan ureztatzea behar du; ur askorik behar ez badu ere, egunero ureztatu behar da.



7. Ez ahaztu potosaz

Barneko landare nagusia da, etxe barruan primeran gelditzen dena. Bikaina da etxerako, eta zintzilikario edo igokari gisa jar daiteke. Landare iraunkorra da; beti izango ditu hosto berdeak. Hori bai: ez zaio lorerik ikusten, ia inoiz ez baita loratzen. Ez zaio komeni eguzkia zuzenean jasotzea, eta ez du ur askorik behar.



8. Berdeaz nazkatuta? Landatu kaladiao

Landare horren hosto gorrixkek beste itxura bat ematen diote edozein gelari. Udazkenean, baina, hil egiten zaizkio hostoak, eta apaingarririk gabe geldi zaitzke hilabete batzuetan. Dena den, ez bota, berriro sortuko zaizkio-eta hostoak! Barneko lekuetarako da aproposa, ez baitu tenperatura aldaketa handirik onartzen. Udaberrian eta udan ureztatzea behar izaten du, baina ureztatzerako lurra lehor izatea komeni da. Hostoak erortzen zaizkionean, berriz, ez dago ureztatu beharrik.



9. Hosta, toki laiotzetarako klasiko bikaina

Aukera ezin hobea eta klasikoa da. Beti geratzen dira ondo halakoak, eta urte guztian ukitu berde bat izateko bikainak dira. Landare egokia da hezetasun handiko eremuetarako. Gehien zaindu beharrekoa zera da: barraskiloen eta bareen landare gogokoenetakoa da.



10. Ezkila lorearekin, sartu morea zure bizitzara

Zure etxea leku berezi bihurtuko du ezkila lorearen kolore more ikusgarriak. Gainera, landareen munduan hasiberria den pertsonarentzat egokia da: oso azkar hazten da eta ondo egokitzen da leku argitsuetara –eguzki zuzenik gabeko lekuak–. Barrualdean bizi daitekeen arren, egunaren zati handi bat itzaletan egoten diren lorategiak, terrazak edo balkoiak ere apain ditzakezu landare horrekin. ■



ANDU

proiektuak



Eusko Gudari 10, Orio
andualtzariak@gmail.com
anduproiektuak@gmail.com
Tel.: 943-13 09 99 / 695 78 30 43



KIMUBAT

— PAISAIA

Sortu zure
paradisua etxean.





Kimubat Taldea

Urrestilla bidea z/g - Azpeitia


943 15 00 85

kimubat@kimubat.eus

www.kimubat.eus

2022RAKO JOERAK SUKALDE GAINETAN

Garaiak aldatu egiten dira, joerak eta ohitura bezalaxe. Duela urte batzuk sukalde gainak material sintetikoek janzten bazituzten ere, joera aldatzen ari dela dirudi orain. Naturala modan dago, eta hori nabarmena da. Sukaldeko gainen 2022rako joerak ezagutu nahi?





35. URTEURRENA



URTEURRENA OSPATZEKO **OPARIAK** DITUGU





Granitozko gainek modan jarraitzen dute

80ko eta 90eko hamarkadetan granitozko gainak ziren erabiltzenak. Kuartzoz, feldespatoz eta mikaz osatutako arroka da granitoa, eta harri naturalen barruan ugariena izanik, beste material batzuk baino eskuragarriagoa da.

Azken urteetan joera aldatzen ari da; estetika retroaren edo vintagearen aldeko apustua garbia da. Horregatik, gaur egungo sukaldeetan granitozko harriak aurkitzea ez da harritzekoa. Oso ondo geratzen dira granitozko gainak sukalde zuri-beltzak.

Marmolaren dotorezia

Marmola da gaur egun aurki daitekeen harri natural dotoreenetarikoak, eta, gainera, modan dago. Harri metamorfiko trinkoa da, tenperatura altuetan kristalizatzen diren kareharrizko arroketatik sortzen dena.

Marmolaren eta granitoaren itxura oso ezberdinak dira; marmola ia lisoa da koloreari dagokionez, nahiz eta pieza batzuek betak dituzten. Gaur egun sukalde batean jar daitekeen harririk politenetakoa da, baina, hori bai, garestia ere bai.

Arbelezko gainak

Arbel naturalezko gainak ez daude gehiegi ustiatuta oraindik, baina hainbat lekutan indartsu agertzen hasi dira. Baina zer

AIRE BERRIAK

1 ARNASTU

Garbitu airea, zure etxeko partikulak, alergenok adibidez, kenduz.

Dyson etxea, Milar Larramendin bakarrik.



2 XURGATU

Ke-erazgailu desberdinak ditugu: isilak, eraginkorrek eta garbiak.

Aukeratu zurea!



3 BERRITU

Eman sukaldeari itxura berria, armairuak eta kaxolak bakarrik aldatuz.

Obra txikia, aldaketa handia!



da arbela? Harri metamorfiko trinkoa eta ale finekoa da. Haren mineralak kuartzoa, serizita eta moskutarra dira nagusiki.

Edertasun ikaragarria du. Hainbat koloretako arbelezko gainaldeak aurki daitezke: grisak, beltz urdinxkak, gorriak, berdeak eta beste tonu batzuetakoak. Gainera, ez da ahaztu behar arbela harri iragazgaitza dela. Horregatik, teilatueta eta etxaurreetan ere erabiltzen da.

Egurraren goxotasuna

Material beroa eta apaingarria nahi izanez gero, aukera ona dira egurrezko gainak. Hezetasuna, beroa eta inpaktuak jasaten dituen lekua da sukaldea, eta onena pagoz, haritzez edo intxaurrez egindako kalitatezko zur trinkozko gaina aukeratzea da. Egurrezko gaina egoki mantentzeko, argi izan behar da urtean behin edo bitan eskuilatu, lixatu eta bernizatu beharko dela.

Material berriak: gaineko portzelanikoak

Orain arte ezezagunak ziren material berriak ere hasi dira agertzen, adibidez, portzelanazko gainak. Gain horiek ultra-konpaktuak dira, eta konposatu mineral natural desberdinak erabiltzen dira horietan. Ina porositaterik ez duen materiala da, eta presio eta tenperatura handiak jasaten dituztenez, oso erresistenteak dira gain portzelanikoak. ■



HIGIEZINEN SALMENTA / ALOKAIURUA

- Etxebizitzak
- Merkataritzako lokalak
- Pabiloiak
- Eraikuntza berriak...
- Etxebizitzan eraberritze integralak egiten dira
- Baserriak
- Garajeak
- Lursailak



Erdi kalea, 21 - AZPEITIA
943-82 90 74

www.egurtza.com • info@egurtza.com



GAU-ARGI, SL.

Argiztapen dekoratibo eta teknikoa
Etxebizitza eta pabiloien instalazioa

Telekomunikazioak

Aholkularitza personalizatua

**Merkatuko marka garrantzitsuenak
ditugu**



Juan XXIII auzoa 16 • AZPEITIA

943-81 43 00

info@gauargi.es • www.gauargi.es





OHEBURUKOA ZUK ZEUK EGIN DEZAKEZU

Trebetasun pixka batekin eta zurezko listoi batzuekin, brikolaje proiektu simple hau egiteko gai izango zara, eta emaitza praktikoa, ikusgarria eta apaingarria lortuko duzu.

Materiala

- Zurezko listoi zuriak eta egur koloreko bat.
- Moldura zuria, junta estaltzeko.
- Nibela, zulagailua, zerra, metroa, iltzeak, mailua eta arkatza.

Pausoak

- 1.- Oheburukoa egin nahi duzun eremuko zokaloaren altuera eta zabalera neurtu eta seinalatu paretan. Horma zati horretatik kendu egin dezakezu errodapia, edo, aldiz, mantendu, eta listoiak handik jarri.
- 2.- Nibel baten laguntzaz, egurrezko listoi bat torlojutu, aurrez ezarritako neurrien arabera. Horren gainean, listoi zuriak bertikalean finkatu iltzeekin, eta goialdean, apalarekin errematatu.
- 3.- Jarri egurrezko moldura bat, hori ere zuria, junta estaltzeko. Bururik gabeko iltzeak erabili, ia ikusezinak direnak.
- 4.- Azkenik, berreskuratu proiektua hastean kendu zenuen egurrezko errodapia, eta jarri berriro listoiaren amaiera ezkutatzeko. Listo!

Oheburukoaren altuerak gelaren neurriarekiko eta sabaiaren altuerarekiko proportzionala izan behar du, nahiz eta erregela hori alda daitekeen efektu bisual jakin batzuk lortu nahiz izanez gero. Ohikoena lurretik 1 eta 1,70 metro arteko altuera izatea da.

Idea: oheburukoaren zokaloa apal batekin errematatu dezakezu. Koadroentzat txoko ezin hobea izango da! ■

ZINKU

ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzaren erreformak
- Teilatuak
- Sukalde, komunak, etab.
- Eraisketak

Ander Zinkunegi
667 74 02 79

*deitu eta eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe*



EGURRA KOMUNEAN ERE

Gehien gustatzen den materiala izan arren, gutxitan aukeratzen da egurra komunerako. Egurra bakarra da. Material noblea da, naturarekin eta erosotasunarekin lotura handiena duena. Beraz, etxeko gune hezeenertarako zergatik egin uko egurrari? Bainuan material hori sartzeko modu asko daude: hormak, zorua, altzari bat, osagarriak... Komuna erosotasunaren tenplua izatea lor dezakezu.



INAKI
sukaldeak cocinas

SUKALDEAK

Hegoalde 8 (Eroski ondoan)
943-83 52 57
ZARAUTZ

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

San Frantzisko 3
943-83 49 60
ZARAUTZ

www.inakisukaldeak.com
cocinas@inakisukaldeak.com



TiEN21

Hona hemen hainbat aukera, hezetasuna arazo izan ez dadin:

1.- Egurrezko zorua

Zur tropikalek ondo jasaten dute hezetasuna. Horiek, komunean sar daitezke olio tratamendua egin ondoren, hala nola teka. Beste egur batzuk bernizatuta erabiltzen dira, bernizak %100 iragazgaitzak ez diren arren. Ba al zenekien egur naturala gogorra eta iraunkorra dela? Gainera, lixa paper bat pasatuta orbanak ezabatzen dira.

2.- Tarima hidrofugoa

Ura jasaten duen eta tratamendu berezia daukan zoru laminatua edo tarima da. Mota horretako lurak geruza desberdinez osatuta egoten dira, eta azken kapak zuraren akabera erreproduzitzen dute.

3.- Zur naturala tratamenduarekin

Autoklabearen tratamenduak agente babesleak sartzten ditu zuraren barruan. Kanpoko zuretarako erabiltzen da, erresistentzia handia duelako. Beraz, egokia da bainugelako eremuren bat estaltzeko ere.

4.- Egur termotratatua

Egurra berotan jartzen da (aire beroa, lurruna, nitrogeno beroa edo olio berotan murgiltzea). Horrek erresistenteago egiten du, itxuraz ilundu egiten den



ZELAI-TXIKI
altzari eta muntai bereziak

Errota 13. Iraetako Industrialdea • 20740 Zestoa

Tfno: +34 943 14 75 32 • 





**3000m²-ko erakusketa, etxe guztia
janzteko era guztietako altzari eta
osagarriak, 40 urte baino gehiagoko
profesionaltasuna, arreta
pertsonalizatua eta beti**

**KALITATEA PREZIORIK
ONENEAN**



**Itziar gaina z.g. • Itziar • Deba
943-19 91 00 • endaneta@mueblesendaneta.com • www.mueblesendaneta.com**

arren. Kanpoaldean eta barrualdean erabiltzen da, eta ohikoa da saunetan ikustea.

5.- Binilikoak

Egurraren ehundura eta itxura duten pieza binilikoak (plastikoak) dira. Lurra edo hormak estaltzeko erabiltzen dira, eta inolako arazorik gabe garbitzen dira. Arreta jarri behar da juntak ondo zigilatuta egon daitezzen eta ura sar ez dadin, lizuna sor baitaiteke.

6.- Zeramikazkoak edo portzelanazkoak

Gres portzelanikoak egurra dirudi, baina ez da. Beraz, inolako arriskurik gabe busti daiteke, zainketarekin edo mantenuarekin pentsatu gabe. Lurrean ez ezik, paretetan ere jar daiteke.

7.- Konketako gaina

Urarekin kontakturik handiena duen gunetako bat da konketa. Horregatik erabiltzen dira egur trinkoa edo egurraren imitazioa diren gainak.

8.- Osagarriak

Beti sar dezakezu egurra komunean, osagarriak egoki baliatuta. Horrela, ez duzu urarekin edo hezetasunarekin hainbeste kezkatu beharko. Toallentzako eskailera bat, xaboiarentzat potea, kutxa bat, bainuontzira-ko erretilu bat... ■



bpd

BEATRIZ POZO
DEKORAZIOA

KONFIANTZA, EROSOTASUNA ETA DISEINUA



Aingeru Kalca, 5
20720 AZKOITIA

943-54 08 86







RENOVALAN

- Birgaitze energetikoak
- Irisgarritasuna – Igogailuak
- ITE konponketak
- Arriskuak kentzea
- Urbanizazioak
- Estalkiak
- Diru laguntzen kudeaketa

Sansinenea industrialdea, B2 · Zestoa
943-44 30 01

gipuzkoa@renovalan.com
www.renovalan.com

KOLORE ZAILAREN ERABILERA ERRAZAK

Pantone Colour Institute kolorearen munduko agintaritzak Very Peri izendatu du 2022. urteko kolore. Bioletaren tonu bakarra da, eta sormena eta irudimena sustatzen ditu.





urrategi

ETXEGINTZA S.L.

Etxe eraikuntzak

Pabilioiak

Urbanizazioak

Erreforma lanak

Zimentazio bereziak

Bizkargi kalea, 3 behea • 20720 Azkoitia

Tel.: 943-85 07 09 • Fax: 943-85 07 09

urrategi@urrategi.com



Urdin peri dinamikoa (bigaro) eta gorri morexka azpitu bizi baten fusioa. Hori da, hain zuzen ere, Pantone Colour Institute kolorearen munduko agintaritzak 2022rako izendatu duen kolorea, eta bere izena Very Peri da. Urdin leial eta fidagarria gorriaren bizitasunarekin nahasten da tonu energetiko berri bat sortzeko.

Lehen begiratuan kolore zaila eman dezakeen arren, dekorazioan aukera desberdinak ematen ditu. Potentzial handia du; beraz, ez izan beldurrik kolore ausart eta dibertigarri horrekin esperimentatzeko.

Kolore-paleta egokia. Zure etxean Very Peri kolorea sartu aurretik, bilatu konbinazio egokia. Tonu horrek ederki hartzen ditu zuria, arrosa, beixa eta berdea. Gainera, laranjaekin eta horiarekin ere ondo konbinatzen du.

Horma bat nabarmendu. Tonu neutrodun paretekin apurtu, eta ausartu Very Peri bezalako kolore bat erabiltzera. Egon-gelako edo logelako hormaren bat margotuz gero, nortasuna eta giro dinamikoa emango dizkiozu etxeari. Kontuan izan kolore hotzek lasaitu egiten gaituztela, eta tonu horretako ukitu batek saihestu egiten duela gela aspergarria izatea. Horrez gain, sakonera irabazteko gainera, pintura plastikoa, paper pintatua edo testuradun pintura aukera ditzakezu.

Osagarriak. Tonu apurtzaile hori hormetarako gehitxo baldin bada, gelako objektu eta osagarrietan erabil dezakezu. Arte-lanen eta apaingarrien bidez sar dezakezu kolorea: etxearen itxura aldatzeko modu bikaina da. Lore freskoak edo landareak dituzten loreontziak, usaindun kandelak, argi aplikazioak eta margolanak erabil ditzakezu.

Dosi txikietan. Very Perik dekorazioari lekua jango diola uste baduzu, modu diskretuago baten sartzea proba dezakezu: oheko arropetan, maingidietan, kuxinetan, gortinetan, alfombretan edo mantetan. Urteko Pantone kolorea sartzeko, eta, aldi berean, zure etxean aldaketa txiki batzuk egiteko modua izan daiteke.

Haurren geletarako unisex tonua. Etxeko gazteenak eta txikiak ere izan daitezke azken joeraren parte. Kontuan izan unisex kolorea izanik, haurren logelak apaintzeko ezin hobea dela; adibidez, armairuen ijeketaren kolorea aldatuz. Konbinatu ezazu tonu neutroekin.

Komunean Very Peri lauza formatuan ere erabil daiteke komunean edo sukaldean. Azulejo mota ugari daude merkaturan, forma, tamaina, patroia eta diseinu desberdinetakoak. Kolore ukitu bat (eta erraz garbitzeko modukoa) ez da inoiz gaizki etortzen. ■



www.desin-lan.com
desin-lan@hotmail.com
615 75 75 09 · 943-14 33 07

Oikia auzoa, z/g - 43. pab
ZUMAIA

3dk
irudika

arkitektura estudioa

www.3dkirudika.com

Tel. 627 62 12 21

Perez Arregi Plaza, 6 beheko
20730 Azpeitia (Gipuzkoa)



PAULO VI AUZOA 10 - AZPEITIA

1967-2021



Gaur egungo eraikinen erosotasunak desiratzen?

IRUDIKA arkitektura estudioan ametsa gauzatzen lagunduko dizugu.

IRISGARRITASUNA

ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA



BALKOI TXIKIENA ERE IZAN DAITEKE LORATEGI

Gaur egun, jardinik gabeko etxeak ez dira lorategirik ez izateko aitzakia. Espazioa bertikalean berrantolatu, berde kolorea nagusitu daiteke etxeko balkoian. Izan ere, lorategi bertikalak ezin hobeak dira etxeari izaera berezia emateko. Gainera, mantentzeko errazak dira horiek.





ARKITEKTURA, BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK
ALTZARI ERAKUSKETA

○
SUKALDE, KOMUN ETA ALTZARI PROIEKTUAK
Bertako kalitatedun markak eta
diseinu eta aurrekontu pertsonalizatuak

○
ALMIRANTE OA KALEA 1, 1º
20810 ORIO.

T:666 04 75 35
osai_arkitektura
osasiain@gmail.com





Ez du axola balkoia handia edo txikia izateak, irudimen pixka batekin berdegune bihur dezakezu. Jarraian dituzu horretarako ideia batzuk. Baina lanean hasi aurretik, hona hemen kontuan hartu beharreko aholkuak:

- Lanari ekin aurretik espazioaren neurriak hartzeak lana erraztuko dizu.
- Kabitzen diren loreontzien kopurua eta mota kalkulatu. Espazioa txikia bada ez baztertu lorategi bertikala.
- Eguzki orduak gogoan izan, landare mota egokienak aukeratzeko.
- Loreontziak eros ditzakezu, baina baita etxean dituzun ontzi zaharrak birziklatu ere.

Tamaina, estilo eta forma desberdinetako balkoietako lorategien irudiak bildu ditugu. Ziur zure balkoia eraldatzeko ideiarene bat aurkituko duzula!

Apalategiak landareekin

Leku askorik ez baduzu, apaletan loreontzi ugari jartzea da 'lorategi' efektua sortzeko modurik azkarrena. Beste ukitu bat emango diozu balkoiari.

Birziklatutako latekin

Idea bikaina da latak birziklatzea eta horiek lorategi bertikalean erabiltzea.

Aprobetxatu hormak

Aprobetxatu atearen edo leihoaren inguruko espazio guztia, eta bete berdez. Sareta bat edo palet zahar bat



PERTSIANAK • TOLDOAK • ESTOREAK

Foruen kalea 9, **ZARAUTZ** • 658 71 37 16 • 943-32 57 00
www.etxeteknik.es • etxe.teknik@gmail.com



Berezi

Reformas - Berrikuntzak

Landeta auzoa
Atxubiaga, 5-behea

AZPEITIA

943-81 37 95

reformas_berezi@outlook.com

Erreforma integrala

- + Teilatuak
- + Fatxadak
- + Estalgarriak
- + Sukaldeak
- + Bainugelak
- + Logelak
- + Egongelak
- + Altzarien diseinua
- + + + + + + + + + +



- + Igeltserotza
- + Keramikak
- + Altzariak



www.reformas-berezi-berrikuntzak.com



jarriz, loreontzi ezberdinak edo igokari bat zintzilika ditzakezu.

Belar artifiziala

Nahikoa leku baldin baduzu, espazioak mugatzeko saiatu belar artifizialdun gune bat jartzen.

Palet zahar batekin

Erraza, polita eta ekonomikoa: erabili palet zahar bat balkoian lorategi bertikal bat sortzeko.

Egurrezko kutxak

Balkoiko barandan kaxa horiek zintzilikatu eta landareentzat zein loreentzat erabil daitezke, baita belarrak edo beste landare jangarri batzuk hazteko ere. ■





Sagasti

LEIHOAK



ZERBITZUAK

- Era guztietako leiho eta itxituren instalazioa: PVC, aluminioa, RPT
- Aluminiozko armairuak • Baranda • Eltxo-sareak • Pertsianak • Konponketak

Eusko Gudaria, 7 · 20810 ORIO · 943-13 00 77 · sagasti@sagastileihoak.com

GORTINEN AZKEN JOERAK

Gortinek edo errezelek gelak borobiltzen laguntzen dute, eta etxeko dekorazioan horregatik dira garrantzitsuak. Goxotasun handiz hornitu nahi duzun etxeko edozein espaziotarako, mugimendudun erorkera daukaten ehun eta kolore naturaletara jotzen dute gortinen gaur egungo joerek.

Lur kolorekoak eta inspirazio naturalak


Modan daude lurraren tonalitateak: naturala, terrakota, berdea, beltza eta marroia. Naturan inspiratutako joera organikoei jarraitzen dien kolorezko paleta da hori. Diseinu estapatuetan, lorategietako tonalitate freskoen paletak ageri dira, hondo argiarekin eta alaitsuarekin.

Lihoa eta belusa

Lihoak gorenean segitzen du bigarren urtez jarraian, eta kuxinetan, izaretan, mahai zapietan, eta, jakina, gortinetan ere sartu da gramaje eta opakutasun altuarekin eta erorkera sofisticatuarekin. Testuradun errezeletan, ordea, belusak jarraitzen du erregea izaten: ehun ateporala da, erosotasuna eta luxu sentipena ematen duena.

Kurba perfektua

'Kurba perfektua' deiturikoa da gortinak egiteko aukerarik dotoreena eta abangoardistena. Hori bai, ohar garrantzitsua bat: sistema hori erabiliz gero, errezelek ezin dute lurrera iritsi, malgutasuna galtzen dutelako. Ideia berri gehiago? Adibidez, bi ehun desberdin erabiltzea gortina bakar batean. ■



LEIHOAK.com
eta toldoak




www.leihoak.com

943 002 275 - 619 432 079

leihoak@leihoak.com

Leihoen eta toldoen erakusketa Zelai Ondo, 23 | **ZARAUTZ**

MARKETIN DIGITALA



- WEB DISEINUA ETA ANALITIKA
- SEO LANAK ETA SEM KANPAINAK
- SARE SOZIALEN KUDEAKETA
- BIDEO KORPORATIBOAK
- POSTA ELEKTRONIKO BIDEZKO MARKETINA

GUKA  ZERBITZUAK

Soreasu 1, 20730 Azpeitia (Gipuzkoa)
943-81 38 41
gukazerbitzuak@ukt.eus
www.gukazerbitzuak.eus

biok

klimatizazioa

Garmendipe kalea, 7

20730 AZPEITIA

943-61 25 10 / 669 39 98 02

biok@biok-klimatizazioa.com



AZULEJOEN JOERA AURTEN

Sukaldeko azulejoek, modarekin gertatzen den bezala, dekorazio joeren arabera aldaketa ugari izan dituzte urteetan; batzuk itzuli egin dira, eta beste batzuk, ia ahaztuta geratu. Garrantzitsua da horiek behar bezala aukeratzea, sukaldea asko erabiltzen den lekua izanik, diseinua praktikotasunarekin uztartzen jakin behar delako.

Sukalderako aukeratzeko dituzun azulejoek politak izan behar dute, ondo geratu behar dute, baina, era berean, garrantzitsua da horiek erraz garbitzea eta lan gutxi emata.

Hori guztia kontuan hartuta, hiru dira aurtengo joera nagusiak:

Angeluzuzenak eta tonu argiak

Sukaldeetako barne diseinuan nagusitzen diren berrikuntzen artean, azulejo angeluzuzenak nabarmentzen dira, azulejo karratuen patroiarekin hautsiz. Joera horrek sukaldean ikuspuntuarekin jolasteko aukera ematen du, espazio zabalagoa izatearen ilusioa sortzen baitu. Tonu argiek modan jarraitzen dute oraindik ere, zuriak edo grisak esaterako, baina baita kolore pastelak ere; horiek giro beroagoa ematen diete sukaldeei. Argi naturala izan edo ez izan, tonu argiek azulejoek argi gehiago izatea ahalbidetzen dute.



Amenabar

**MOTA GUZTIETAKO KORTINAK,
OHERAKO KOLTXAK,
ALFONBRAK ETA OSAGARRIAK**



Elizkale, 32 • AZPEITIA 20730 • 943-15 06 97 / 685 11 07 03

www.amenabardecoracion.com / info@amenabardecoracion.com

Joera retroa

Azulejoak iraganeko formekin birziklatzea da joera berria. Horri esker, giro askoz tradizionalagoak sor daitezke; vintage diseinuak eta askoz zaharragoak diren akaberak behar dira.

Vintage edo retro azulejoen joerak baztertutzat jotzen ziren materialak erreskatatu nahi ditu. Onena egoera onean dauden azulejoen aukeraketa egitea da, paretetan edo topeetan aplikatzeko; ikusgarritasuna irabaziko du sukaldeak.

Forma irregularrak

Tradizionalarekin hausteko, forma irregulardun azulejo he-xagonalen edo borobilen aldeko apustua egingo da aurtzen. Horrenbestez, diseinu eta patro berriak sortuko dira, baita sukaldeko arlo jakinetan erliebe desberdinak sortzeko aukera ere.

Beste joera bat eskalada da; azulejo bat bestearen gainean jartzea, inpaktu bisuala sortzeko. Ekialdeko dekoraziotik dator korrante hori, eta ukitu internazionalagoa ematen die sukaldee, ohikoa ez den akaberarekin.

Azulejoen aurtengo joera ezagututa, zer hartu behar duzu kontuan sukaldeko lauzak hautatzerakoan?

Hona hemen bederatzi aholku:

1. Kontuan izan erabiltzen dituzun altzariak: horien estiloak mugak sortzen ditu gaineratuko diren elementuetarako. Horregatik, ezinbestekoa da sukaldeko azulejoak altzarien estilora egokitzea; hala egin ezean, galkargatuta gera daiteke eremua.





agirre
oparidenda

Erdi kalea, 1
Azpeitia

apaingarriak
lanparak
altzari txikiak

koadroak
ispiluak neurria
opariak



943-81 13 25

agirre_oparidenda@hotmail.es





2. Sukaldeko azulejoekin konbinatzen duten gainak: kolore ilundun gainak ondo moldatzen dira azulejo zuriekin. Azulejo hidraulikoak, adibidez, aproposak izan daitezke gain zuri, beix edo metalikoentzat.

3. Zorua ere kontuan hartzen da, eta konbinatzea gomendatzen dugu. Adibidez, azulejo zuria erosi daitezke, eta tonu gris argietan xaflatutako tarimazkoa zorua jarri.

4. Aukeratu azulejo mota: zeramikazkoak, portzelanazkoak, azulejo arteztuak/errektifikatuak (neurri desberdinetakoak), gresitezkoak (azulejo askoz txikiagoak izanik, bainugeletarako egokiagoak dira) edo gres eta portzelanazko gresa (modan dagoen aukera oso dotorea) dira ohikoena.

5. Sukaldeko azulejoen diseinua, gero eta garrantzitsua da: sukaldeak gune praktikoa izateari utzi dio, eta aisialdirako eremu bihurtu da. Izan ere, gero eta pertsona gehiago dira sukaldaritza zaleak. Hori dela eta, garrantzia hartzen ari da diseinua. Hala, gero eta ohikoagoa da etxeetan azulejo hidraulikoak jartzea.

6. Egituren ehundura leunagoa izan daitekeen arren, beti bete behar du baldintza bat; ahalik eta poro gutxien izatea. Izan ere, sukaldeko lauza porotsuek usainak eta zikinkeriak hartzen dituzte, eta zailak dira garbitzeko.

7. Aukera pertsonalizatuak badiren arren, formatu ohikoena 10×10 zentimetro eta 100×100 zentimetro arteko zeramikak dira. Hala ere, ez dago formatu bakar bat, eta beti egokitu daitezke norberaren beharretara.

8. Eta kolorea? Azulejo kolore ezagunagoak badira, adibidez, tonu horiak, laranja, urdinak edo berdeak. Hala ere, gero eta ohikoagoa da sukaldeko azulejoek kolore diskretuagoak izatea, hala nola zuria edo grisa.

9. Sukaldeko azulejoen prezio ohikoena metro koadroko 20-40 eurokoa da, baina kontuan hartu behar da eskulana sartzeko al den, eta eskaintza berezirik ba al den. ■

ESKERRIK ASKO

25

URTE



Zeramikaren boutique
DECO-RAMIK
boutique de la cerámica




1996TIK

#URTEURRENA

BAINUGELETAKO ALTZARI ETA OSAGARRIETAN ESKAINTZA BEREZIA





URRATEGI

INTERIORISMO

barne diseinua



ERREFORMAK



www.urrategiinteriorismo.com

| Arretxe 9. 20730 ZAPEITIA

| Arragueta 27. 20600 EIBAR



ARMAIRU PERFEKTUAREN BILA

Armairuan ordena nagusitu dadin, ez dago erdibideko konponbiderik. Hainbat pauso eman behar dira horretarako: dena hustu zein arropa eta osagarriak batu. Hona hemen armairu perfektua izateko bidean egin beharreko hainbat urrats.

1.- Hustu eta garbitu

Erabat hustu behar duzu, eta ez bakarrik armairua; arropa gordeta duzun leku guztiekin ere gauza bera egitea komeni da. Horrela, dituzun jantzi guztiak ikusiko dituzu, gordetze-ko duzun espazioa zer-nolakoa den argi izango duzu, eta

bide batez, armairua eta kaxoiak sakon garbitu ahal izango dituzu.

2.- Jantziak ordenatu aurretik, bota beldurrik gabe

Beldurra ematen du, baina egin beharreko lana da. Atera



artilan
a l f o n b r a k

Neurrira egindako alfonbrak
Binilozko alfonbrak
Alfonbra tradizionalak



San Frantzisko, 8 • ZARAUTZ

943-13 10 59

www.artilanalfonbrak.com





arropa guztia armairitik, horiek ordenatzen hasteko. Arropa ona, erabiltzen duzuna edo kalitatezkoa, eta zoriontsu egiten zaituena gorde. Gainerakoekin, egin bi sail: gustatzen ez zaizuna edo ondo dagoena norbaiti emateko; eta ondo ez dagoena, botatzeko.

3.- Zatitu eta irabazi

Geratzen zaizun arropa gorde aurretik, sailka ezazu, horrela bakarrik jakingo duzu zer leku behar duzun gauza bakoitzarentzat, eta hura gordetzea errazago egingo zaizu. Egin gal-tzen pila bat, alkandoren beste bat, kamisetena, jertseena...

4.- Jarraitu zatitzen

Ez gelditu: zatitu arropa pixka bat gehiago, armairu barruan hobeto antolatzeko. Bereizi mahuka motzdun eta luzedun kamisetak, egunerokoak eta praka dotoreak nahiz soineko motzak eta luzeak. Arropa zenbat eta gehiago zatitu, are errazagoa izango da gordetzea, aurkitzea eta ordenatuta edukitzea.

5.- Objektiboa izan

Armairuaren antolaketa zure arropetara egokitzen dela ziurtatzeko unea da. Modek, gure gustuek edota urteek erabiltzen dugun arropa aldarazten dute. Gaur egun, alkandoren erregea edo erregina bazara, horiek gordetzeko beste barraren bat beharko duzu; edo apalen altuera mila kamiseta sartzeko egokitu; edo zapatari berri bat erosi...

6.- Logika erabili

Esкура gorde gehien janzen duzun arropa. Horrek 100 eta



Lastaola
leihoak

- Isolamendu termikoa
- Isolamendu akustikoa
- Lapurreten aurkakoak
- Kanpo arotzeria eraikitzea eta jartzea
- PVC
- Aluminioa
- Mixtak

Industrialdea pab,43 • Tel.: 943-85 11 81 • lastaolaleihoak@gmail.com • 20720 Azkoitia (Gipuzkoa)





landeta

brikodenda

Pinturak 

Giltzen kopiak, zerrailak 

Garbiketarako gauzak 

Baserriko tresneria 

Kolak, silikonak 

Industria hornidurak eta laneko arropak 

Margotutako papera 

Parketak 

Burdindegia 

Segurtasunerako laneko arropak 

15
urte zurekin



Landeta hiribidea, 8 • AZPEITIA • 943-81 25 66 • 607 58 89 13
landetabrikodenda@hotmail.com • www.landetabrikodenda.com

200 zentimetro arteko altueran kokatzea esan nahi du, eta beste denboraldi batzuetan edo noizbehinka erabiltzekoak ez jarri hain leku irisgarrian.

7.- Marie Kondoren tolestura

Bertikalean tolestea –Marie Kondo ordenaren guruaren gogokoenetako bat– espazioa aprobetxatzeko modurik onena da, batez ere kamisetak eta barruko arropa. Kaxoi asko ez badituzu, erabili kaxak.

8.- Barrak edo apalak?

Armairuan alkandora, jaka eta jantzi asko baldin badituzu, zenbat eta barra gehiago, hobe. Erabili kutxak beste denboraldietako arropa txukun edukitzeko. Armairuaren behealdean jarri noizbehinka erabiltzen dituzun zapatak kaxetan.

9.- Esekitokiak garrantzitsuak dira

Esekitoki guztiak berdinak baldin badira, armairuaren edukiera hobeto aprobetxatzen da eta irudia estetikoagoa da. Alkandorentzat, ez aukeratu oso handiak, ezta oso meheak ere. Amerikanek, jakak eta berokiek zabalera pixka bat gehiago beharko dute.

10.- Galtza guztiak agerian!

Armairu ordenatu bat izateko, kontuan izan behar duzu galtzak ez direla luxu bat, inbertsio on bat baizik. Horrelako eseikitokiek leku asko aurrezten, eta galtzak azkar ikusteko eta eskuratzeko aukera ematen dute. Hori bai, gehienez ere, bi eseikitoki erabili horretarako. ■





PILDAIN
Inmobiliaria



Artzubia, 6, behea-esk • 20730. Azpeitia • Tel.: 943-81 21 67 • Inmobiliaria@pildain.com

bertako

igogailuak | ascensores

EUSKARA, GURE HELBURU KOMUNA

22. korrika

HITZ EKIN

Amurriotik Donostiara
2022ko martxoaren 3tik apirilaren 10era



DEITU EDO BISITATU
www.bertako.eus

ARABA
945 712 822

GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935

NAFARROA
848 870 917



PLANTXAREKIN EGIN DITZAKEZUN 6 GAUZA

Lisaketaz haratago, beste gauza batzuk egiteko ere erabil dezakezu plantxa. Hona hemen egunerokoa asko erraztuko dizuten beste erabilpen batzuk.

Lisatzea aspergarria izan daitekeen arren, batzuetan beharrezkoa da arropetako zimurrak kendu nahi badituzu. Hala ere, plantxa ez baduzu gehiegi erabiltzen, jakin ezazu ez duela arropari zimurrak kentzeko bakarrik balio. Beste gauza batzuetarako ere erabil dezakezu, eta denbora asko aurreztuko duzu.

1.- Txikitu dena handitu

Lehorgailuan ustekabeen txikiagotu den arropa berreskuratu dezakezu. Arropa artilezkoa bada, edo elastanoa edo likra badu, erraz berreskuratuko dituzu. Zuntz horiek beroarekin luzatu egiten dira; beraz, plantxa zuntzaren noranzkoan pasatu eta listo.

2.- Eskuoihalak askoz ere leunago

Eskuoihalek leuntasuna berreskuratzea nahi baduzu, lisatu itzazu. Hori bai, lurrunarekin egin, eta gehiegi zapaldu gabe. Lurruna ehunean sartzen da, bigundu egiten du eta felpa altxatu egiten du. Horrela, zure eskuoihalak harrotuta gertatu dira.

3.- Espazioa aurreztu

Gure armairuetan lekua aurrezteko trikimailuak bilatzen ari gara beti, eta lisatzeak ere lagun zaitzake horretan. Izan ere, plantxatzen duzunean, zure arroparen zuntzak zanpatu egiten dira, eta beraz, bolumena murrizten zaie. Ohikoena arropa

handietan erabiltzea da, hala nola maindireetan edo mahai-zapietan. Baina, jantzi txikiagoekin probatu al duzu? Ikusiko duzu espazioa nola handitzen den.

4.- Bainuko gortinak estreinatu nahi duzun guztietan

Oso ohikoa da, garbitu berritan, dutxako gortinak oso zimurtuta geratzea, eta zikin itxura izatea. Horrek irtenbidea badu: errezelak lisatzea. Kontu handiz egin, ordea, dutxako errezen plastikoa urtu egin baitaiteke plantxaren beroarekin. Hori saihesteko, jarri eskuoihal lodi bat gortinaren eta plantxaren artean. Horrekin zimurrak kentzeko adina bero pasatzen utziko duzu, baina ez urtu ahal izateko beste.

5.- Tolesturak egin

Praketako tolesturak egitea askoz ere errazagoa da plantxa batekin. Ez duzu josteko kit-a behar, plantxarekin azkarrago eta errazago egingo duzu. Tolesturen markak kendu nahi badituzu, berriz, ez duzu praktika garbitu beharrik; eremua pixka bat busti eta plantxa ondo berotuta pasatuta bakarrik joango dira.

6.- Distirak kendu

Zure jantzietan geratzen diren distira gogaikarri horiek kentzeko, igurtzi ezazu ingurua ozpin zuritan bustitako belaki batekin. Gero, oihal batekin estali eta pasatu ezazu plantxa. Eta listo! ■



TiEN21 ESNAOLA

Orain
SMEG
produktuak
ere salgai



Pablo VI, 3 · Tel. 943-08 03 55 · esnaelek@outlook.com



ETXEAN LAPURRETAK SAIHESTEKO AHOLKUAK

Ertzaintzaren datuen arabera, 2021ean %7 igo ziren Gipuzkoako etxeetan egindako lapurretak. Igoera horren aurrean, hona hemen etxeetara edo merkataritza lokaletara lapurretara sar ez daitezen lau aholku.

- 1.- Kalitatezko sarrerako ate batekin hornitu, eta barruan egonda ere, sarraila beti giltzaz itxi; batez ere, gauez.
- 2.- Komeni da segurtasun sistemak jartzea, hala nola lapurreten edo zulagailuen aurkako sarrailak, irudiak hartzeko sistema duten behatxuloak edota bideo grabaziorako sistema duten atezain automatikoak.
- 3.- Balioa duten elementuen inbentarioa egin, ahal dela argazkien bidez, eta kutxa gotor batean gorde.
- 4.- Atariko atea itxita eduki beti, eta etxebizitza familiabakarren kasuan, neurri gehigarriak har daitezke; lorategiko eta garajeko ateak itxita edukitzea eta leiho zein balkoi guztietan burdin hesiak eta pertsianak jartzea. ■



C & J

CERRAJEROS

Araba, 26 • 20800 ZARAUZ
Juan Gisasola 4 - 20600 EIBAR
665 59 01 19

Asier
Iturgintza

ASIER ITURGINTZA

Iturgintza

Foruen kalea, 9 · Zarautz
943-13 13 36 · 690 11 29 46
belenasier1@gmail.com
www.fontaneriaasier.com



**TOPATU GURE ON-LINE
GIDA KOMERTZIALETAN
ZURE ETXERAKO
BEHAR DUZUN GUZTIA**
etxea / gremioak / dekorazioa
/ altzariak sailetan begiratu



EZ DA ZER EGITEN DUZUN, NOLA ETA ZERGAITIK EGITEN DUZUN



KALITATEA ETA IRAUNKORTASUNA



Aholkularitza, 3D-ko diseinuak eta obra kudeaketa eskaintzen dizkizuegu kalitatezko bukaerarekin,



Hartu hitzordua gure webgunean edo telefonoz

TXINDOKI estudioa

Patxita Etxezarreta 3, Zumaiak
688 67 88 29

www.txindoki.com

TXINDOKI altzariak

JM Iturriotz, Beasain
943-88 03 98

bastidasukaldeak

